

BASAURIKO UDALEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA HIRIGINTZAKO LIZENTZIEN ESPEDIENTEAK EBAZTEKO EPEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.

2012ko Uztailaren 25ean egindako Plenoan onartuta.

1.- XEDEA.- Udal-ordenantza honen xedea da gardentasun handiagoa lortzea eta administratuari segurtasun juridiko handiagoa eskaintzea. Halaber, tramiteak errazteko lege-beharrari erantzungo zaio udal honen aurrean hirigintzako lizentziei lotuta egin behar diren prozedura guztietan.

2.- EREMUA.- Ordenantza honek Basauriko udalerriaren lurralde-esparruaren barnean hirigintzako lizentzien espedientei dagokien guztia arautuko du.

3.- SAILKATUTAKO JARDUERA LIZENTZIA.- Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/98 Lege Orokorreko II. Eranskineko A) atalean –Europako Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzeko 7/12 Lege Autonomikoak aldatua- zerrendatuta dauden sailkatutako jardueren lizentzietarako aurkeztu beharreko agiriak eta ebazteko epea L-1 Fitxan arautu dira.

4.- HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK.- Hirigintzako lizentziatzat jotzen dira udal honetan eskatu behar direnak, egin nahi den ekintza lizentzia behar duten horietako bat izateagatik, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legearen 207. artikuluan adierazi bezala, Europako Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzeko 7/12 Lege Autonomikoak aldatua.

5.- LIZENTZIAK ESKUALDATU.- Hirigintzako lizentziak eskualdatu ahal izango dira, eta eskualdaketa egindakoan lurzorua azalerarena edo eraikitzearena edo dagokion eraikinarena ere eskualdatu direla ulertuko da, aurkakorik hitzartzen ez bada. Dena dela, eskualdaketa egiten duenak eta eskuratu duenak eskualdatze hori idatziz jakinarazi beharko diote Udalari; bestela, titularrarentzako ondorioztatzen diren erantzukizun guztien menpe geldituko dira biak.

Lizentziak eman zirenean adierazitako baldintza beretan eskualdatuko dira eta eskuratzailerak emakida horretatik ondoriozta daitezkeen eskubide eta betebeharrak hartuko ditu bere gain. Lizentziaren espedientearen lagapenak, abalak eta beste mota bateko edozein berme agertuko balitz, eskuratzailerak konpromiso horiek guztiak hartu beharko lituzke bere gain, eta abalak egongo balira, dagozkionak aurkeztu beharko lituzke eskualdatzen duenak jarritakoak kitatu aurretik.

Egintza Komunikatu bidez hasi daitezkeen jarduera haien guztien kasuan, ez da beharrezkoa titulartasunaren aldaketa tramitatzea eta jardueraren aldaketa tramitatzea ere ez.

6.- ESKABIDEA ZUZENTZEA ETA HOBETZEA.- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71 eta 42 artikuluekin bat, aurkeztutako agiriak nahikoak izango ez balira edo gabeziak izango balituzte, interesdunari HAMAR EGUNeko epea emango zaio falta diren agiriak edo/eta hautemandako gabeziak zuzendu ditzan. Aipatu epea, halaber, BOST EGUNez luza daiteke. Epe horretatik aurrera, aipatu zuzenketak egin izan ez baditu, eskaera bertan behera utzi duela ulertuko da eta ebazpen bidez

emango zaio zirkunstantzia horren berri. Jakinarazpenean, halaber, gertakariak zeintzuk izan diren eta zein arau aplikatu diren zehaztuko da.

7.- ESPEDIENTEAREN IRAUNGIPENA.- Hirigintzako Lizenzien espedienteak izapidetzen hasiak badira, eta interesdunari egotz dakioken arrazoiagatik izapideak bertan behera geratzen badira, interesdunari berari jakinaraziko zaio hiru hilabeteren buruan mintzagai dugun espedientearen iraungi egingo dela, udalaren azken errekerimendutik zenbatzen hasita. Epe hori igarota, errekeritutako pertsonak izapideei berrekiteko edo/eta espedientearen ebatzeko beharrezkoak diren jarduketak gauzatu ez baditu, Udalak jarduketak artxibatu egingo ditu eta interesdunari aipatu egintzaren berri emango dio. Jakinarazpenean, halaber, egoki deritzon errekursoak eskainiko ditu.”

“L-2”

SAILKATUTAKO JARDUERENTZAKO JARDUERA LIZENTZIA.

Sailkatutako jardueratzat hartzen dira Eusko Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/98 Lege Orokorreko II. Eranskineko A) atalean daudenak, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak egindako aldaketen arabera.-

* Sailkatutako Jardueraren Proiektua, teknikari eskudunak idatzitakoa (indarrean dagoen berariazko legeekin bat) eta dagokion Elkargo Profesionalak oniritzia emana. (3 ale).

* Jarduera ezarri ahal izateko Obrako Proiektu Teknikoa egin behar izan bada, obrak amaitzean Obra Bukaerako Ziurtagiria aurkeztu beharra dago, baita kasuan kasuko sektoreen ziurtagiri teknikoak ere. (Obren eta instalazioen Egiaztagiri Teknikoak)

* Jarduera ezartzeko obrarik edo Proiektu Teknikorik egin behar izan ez bada, obrak amaitzean suteen kontrako sistemen, aireztatze sistemen eta larrialdietarako argiteriaren gaineko argazki-erreportajea aurkeztu beharra dago.

* Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko txostena edo aipatu txostena beharrezkoa ez dela agertzen duen ziurtagiria, otsailaren 27ko 3/98 Legearen II. Eranskineko b) eta c) ataletan zehaztutako jardueretarako.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 6 HILABETE Jarduerarako eta HILABETE BAT NNZZak betetzen direla dioen Ziurtagiria aurkezten denetik, Irekitzeko).

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Zuzentzen ez badira, eskaria beste tramiterik gabe artxibatu ahal izango da.

“L-3 L-4”

KONPONKETA OBRAK,

HOBEEKUNTZAK EDO EGOKITZAPENAK EGITEKO LIZENTZIA, FATXADAK, ESTALIAK, 3/98 LEGEKO II. ERANSKINEKO B) ATALEKO JARDUERAK EZARTZEKO LOKALAK (19/12 EDLren ERANSKINEAN DAUDEN KOMERTZIOAK ETA ZENBAIT ZERBITZU IZAN EZIK) ETA SAILKATUKO JARDUERAK ETA ANTZEKOAK.-

* Egin beharreko obren proiektua eskumendun teknikariak eginda, Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarrizko Azterketa edo Segurtasun eta Osasun Azterketa barne, urriaren 24ko 1627/97 EDren arabera (BOE 256, 1997/10/25) Eraikuntzako Kode Teknikoa, 20/97 Legea, irisgarritasunari buruzko 68/2000 Dekretua eta gainerako indarrean dauden berariazko legeak beteaz eta argazkiak.

* Elkargoko enkarguaren Jakinarazpen orria edota parte hartu duten teknikarien Zerbitzu Profesionalen alokairu kontratuak, aldeek sinatuta.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE .

AKATSAK ZUZENTZEKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

Obren lizentzia behar duten jardueretarako lokalak egokitzeko obrak, 3/98 Legeko II. Eranskineko A atalean dauden jarduera guztiak dira.

L-3/L-4 fitxa honen arabera, obretarako lizentzia behar duten lokalak egokitzeko obrak hauek dira:

1.- Argindarra ekoizteko instalazioak eta energia berriztagarria atzemateko eta argindar bihurtzeko instalazioak, jarritako 50 kW-tik gorako potentziakoak eta 100kW-koak edo txikiagokoak.

2.- Tailerrak eta zenbait lantegi (aroztegiak, galdara-lantegiak, muntaia, mekanizazioa, ogia, gozoak eta cateringeko lantegiak...) guztira instalatutako indarra 25 kW baino txikiagoa bada eta azalera 300 m2 baino gehiago ez bada.

3.- Toxikoak, arriskutsuak edo su hartu dezaketenak ez diren produktuen biltegiak.

4.- 50.000 litroko edukiera gainditzen ez duten erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak, (salbu eta zerbitzu-gunekoak badira).

5.- Ibilgailuak gordetzekoak.

6.- Zerbitzu jarduerak; hala nola haurtzaindegia, ikastetxeak, osasun etxeak, farmaziak, albaitaritza klinikak, polizia-etxeak eta segurtasun zentroak, bulegoak eta ehorztetxeak.

7.- Hotel eta egoitza komunitarioak, adinekoen egoitzak, ostalarien etxeak eta antzeko establezimenduak.

8.- Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak, ikuskizun publiko eta jolasetako establezimenduak, jarduera sailkatuaren lizentzia behar ez dutenak.

9.- Abeltzaintzako ustiategi txikiak eta etxeako eskortak, Ingurumenaren Babesari buruzko 3/98 Lege Orokorraren II. eranskineko A) hizkian sartu ez direnak.

10.- Transformazio zentroak.

11.- Informazioa tratatzeko eta komunikatzeko zerbitzuak (kalkulu zentroak, datu-bankuak, irrati eta telebista errepikagailuak, satellite bidezko errepikagailuak, telefonia mugikorrekiko estazio baseak eta antenak (BTS), informazioaren tratamendu elektroniko edo informatikorako zentroak, irrati-telefoniako eta irrati-telegrafiako estazioak, irrati eta telebista emisoreak eta alarmak kontrolatzeko zentrala eta antzekoak.

12.- Instalazio osagarriak: Galdara-gelak, aire girotu instalazioak, hozkailu kamarenak, erradiodiagnostiko medikuko instalazioak, diagnostiko medikorako X izpidun ekipoak eta instalazioak hartuko dira horrelakotzat, ezarri daitekeen araudiaren arabera.

13.- Hilerriak eta errausketa-laberik gabeko tanatorioak.

14- 3/98 Legearen 55. artikulua xedatzen duenaren arabera, osasunean eta ingurumenean antzeko eragina daukaten beste jarduera batzuk.

“L-5”

HOBI SEPTIKOA EZABATZEKO LIZENTZIA

* Eraikineko saneamenduaren sare partikularrari dagokion plantako krokisa, zeinean gaur egungo egoera eta aldaketaren ondoren geratuko dena ageri den. Era berean, saneamenduko udal sare orokorrari txertaketa zehazki non egingo zaion adierazi beharko da.

* Egin behar diren obrei buruzko aurrekontua, diru-ataletan zehazturik.

* Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarrizko azterketa, Tekniko eskudunak egina eta dagokion Elkargo Profesionalak onetsia, urriaren 24ko 1627/97 ED-an zehaztutakoaren arabera (256 zenbakidun BOE).

Gomendioa.-

Eskaria egin aurretik, Ingeniaritza Arloan (Udaletxeko 3. solairuan) informazioa eskatuko da dagokion eraikineko hobi septikoa ezabatu daitekeen jakiteko.

Ingeniaritza Arloak aipatu eraikineko hobia kentzea onesten badu, bidali beharreko aurrekontuan jaso beharreko hainbat baldintza bete beharko dira. Hona hemen:

a) Hobi septikoa hustu eta sakon garbitu beharra dago. Lan horiek gauzatzean segurtasun neurri zorrotzak hartu behar dira. Behin garbituta, material pikordun trinkotuarekin bete beharko da mintzagai dugun hobia. Bestalde, obrak gauzatu bitartean, aurreikusi egin beharko da hobi septiko horretara doazen ur zikinak jasoeta kanalizatzeko modurik egokiena zein den.

b) Oro har, eraikinetik datozen ur zikinen zorrotzenak kutxeta batean jasoko dira. Kutxeta hori, halaber, arakatu daitekeen etxe-sifoiarekin lotuta egongo da. Etxe-sifoi hori egoki mantendu beharra dago, trabatzerik eta usain txarrik sor ez daitezela. Aipatutako bi kutxetak titularitate pribatuko lurretan jarri beharko dira, ez baita jabari publikoan lekurik hartzen utziko.

c) Etxe-sifoiaren irteera-tutuak 200mm-ko diametroa izango du gutxienez eta PVCzkoa (teila) izango da. Era berean, beharrezko malda ezarriko zaio, erregistroko putzua baino lehen metaketarik eta inkrustaziorik egon ez dadin. Tutu horren eta hobi septikoaren aireztapen-bidea lotuko dituen konexio bat egingo da, kolektoreak beharrezko oxigenazioa izan dezan.

d) Obrak amaitutakoan Udala jakinaren gainean jarri beharra dago. Ingeniaritza Alorrak, ondoren, ikuskapeneko bisita egingo du. Dena zuzen bada, aurrez jarritako fidantza itzuliko da. Aipatu berri dugun fidantza, bidenabar, obrak gauzatu bitartean kaltetu litezkeen hirigintza-elementuak konpontzeko jarri ohi da.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

“L-6”

GASA INSTALATZEKO LIZENTZIA.

1.- Proiekturik behar ez duten instalazioak jartzeko aurkeztu behar agiriak:

- * Gas hartzaileak izango duen instalazioaren Proposamen Teknikoa, Tekniko Instalatzaileak egina eta enpresa instalatzailearen zigilua duena. Proposamenak, halaber, Etxejabeen Elkarteko Lehendakariak sinatua eta Hornitzaile Etxeak ikusonetsia behar du.
- * Proposamena idatzi duen Teknikoak gasa instalatzeko duen baimenaren fotokopia.
- * Kanpoko nahiz barneko fatxada guztien koloretako argazkiak, non aurreikusitako instalazioa seinalaturik dagoen.
- * Aurrekontua, kontzeptu eta obra-unitateetan zehazturik.
- * Etxejabeen Elkarteko Akta Liburuaren fotokopia, gas naturala hartu ahal izateko instalazioa jartzeari buruzko erabakia dakarrena edo lehendakariak horri buruz emandako ziurtagiria.

2.- 1627/97 EDko 4 artikuluan zehaztutakoarekin bat, proiektua behar duten lizentziatarako ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

- * Gasa instalatzeko obren proiektuak (Tekniko eskudunak idatzitakoak eta Elkargo Profesionalak behar bezala ikus-onetsitakoak) 450.759 eurotik gorako (75 milioi pezetatik gorako) aurrekontua baldin bada; 30 lanegun baino gehiagoz gauzatuko bada; uneraren batean, 20 langiletik gora jardunean izango baditu; laneskua guztira 500 lanegunetik gorakoa izango bada edo aipatu obrak tuneletan, galeriatan, lurrazpiko eroanbidetan eta presatan gauzatuko badira, aipatutako proiektua aurkezteaz gain, Segurtasun eta Osasun txostena ere entregatu beharra dago eskatutako lizentzia lortzeko.

3.- Gas erregaia hartuko dituzten instalazioak martxan jartzeari nahiz berorien dokumentazioari buruzko eta baimendutako gas instalatzaileei zein enpresa instalatzaileei buruzko 1985eko abenduaren 17ko Aginduan xedatutakoarekin bat, proiektua behar duten lizentziak lortzeko ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

- * Teknikari eskudunak idatzitako Proiektua aurkeztu beharra dago derrigor. Proiektuak, ondoren aipatuko ditugun ezaugarriak biltzen baditu, Elkargo Profesionalaren ikus-onetsia behar du:
 - Aldi berean (60.200 kkal./h.) 70 KW-etik gorako potentzia izendatua duten banakako instalazioak.
 - Aldi berean (602.000 kkal./h.) 700 KW-etik gorako potentzia izendatua duten barnealdeko harguneak edo/eta komuneko instalazioak.
 - 4 bar-etik gorako presio altuko sareetatik energia hartzen duten instalazioak, duten potentzia dutela.
 - Botilak edo edukinontziak dituzten GLP instalazioak:
 - 15 kilotik beherako botilak dituztenak, guztira 200 kilotik gora har ditzaketenak.
 - 15 kilotik gorako botilak dituztenak, guztira 350 kilotik gora har ditzaketenak.
 - Instalazio bereziak, zeinetan berezko arauetan hala jasota dagoen.
 - Aurrez proiektua zuten instalazioak, baldin eta aldi bereko beren potentzia izendatua % 30 baino gehiago handitu bada.
 - Proiektuarentzat eskatutako aldi bereko potentzia izendatua gainditzen duten zabalkuntzak, betiere, aurrez proiekturik ez bazegoen.

* Kasu horietan guztietan, Proiektuaz gain, Segurtasun eta Osasun txostena ere aurkeztu beharra dago.

4.- Zabalkuntza (Komunitateetan existitzen diren instalazioei gauza berriak gehitzea).

Existitzen den gas instalazioaren zabalkuntza moduan izapidetuko da.

- Eraikinean gasa instalatzeko bere garaian ateratako lizentziaren fotokopia.
- Aurrekontu zehaztatua.
- Etxaurrearen argazkia.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

“L-7”

ERAIKIN BERRIAK EGITEKO OBRA

LIZENTZIA

Eraikin berriak egiteko obra lizentzia eskatzeko, ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

* Ondoko atalak dituen Oinarrizko Proiektua:

- a) Txostena: - Xedea/aurrekariak; hirigintza-justifikazioa eta hartutako irtenbidearen azalpena.
- b) Eranskin teknikoak: - EKT egiaztagiria (OA-SB eta OA-ES) eta irisgarritasuna (68/2000 D).
- c) Aurrekontuaren laburpena
- d) Planoak: Egoera; Kokalekua; Lursailaren egungo egoera agertzen duen planoak; Jabego eta erabilera publikoko utzitako lursailaren planoak; arkitekturako planoak – (Solairuak, altxaerak, atalak) + kotatutako planoak.

Lizentzia eskatzeko, halaber, exekuzio-proiektua aurkez daiteke. L-8 atalean duzue azken proiektu horrek gutxienez jaso behar dituen datuak.

* Urbanizazio osagarriarentzako dokumentazioa:

a) Txostena: Hartutako irtenbidearen azalpena; Instalazioen kalkulua eta dimentsioak; eta Araudiaren egiaztagiria.

b) Planoak: Dohain utzi zaion erabilera eta jabego publikoko lursailaren planoak; Instalazioak, sareak eta hartuneak; Ur horniketa; Saneamendua (Euri-ura eta ur zikinak); Elektrizitatea eta argiteria; Gasa; Hiriko altzarien planoak; Zoladuraren planoak.

* Aipatu agiriez gain (betiere Exekuzioaren gaineko oinarrizko agiria aurkeztu bada), 8-L “Eraikin berriak egiteko obra hasiera baimentzea” ordenantzan zehaztutakoa ere entregatu beharko da. Izan ere, aipatu agiria indarrean dauden arauekin bat badator, obrei ekiteko baimena emango baita.

* Esku hartu duten teknikarien zerbitzu profesionalak eskatzearen Jakinarazpenorria, baita bi aldeek sinatutako kontratua ere.

* Hirigintza-aprobetxamenduaren eskualdaketa.-

- Jarduketa Asistematikoen kasuan –Hau da, HS-ri buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legeari egokitu ez zaion eta indarrean dagoen HAPO exekutatzen ari diren jarduketan kasuan– beharrezkoa bada, eskatzaileak hirigintza-aprobetxamendua eskualdatzeko formalizazio-proposamena egingo du, hori guztia 5/98 Legearen xedapen gehigarrian ezarritako modalitateekin bat.

- Beste pertsona batek jabe dituen berriazko aprobetxamenduak lortuz. Aipatutakoa akreditatzeko, eraikuntza gauzatuko den lursailaren eta lursail osagarriaren edo, kasuan kasu, osagarrien jabetza-titulartasuna erakusten duten dokumentu grafikoak eta literalak aurkeztuko ditu.

- Berriazko aprobetxamenduak Basauriko Udalari zuzenean erosit.

* Derrigorrezko edo doako lagapenen edo/eta erabilera publikoko zortasunaren zirriborroa, Hirigintza Alorrean eskura daitekeen bi aldeetarako ereduarekin bat.

Zirriborroaz gain, dagokion planoak ere entregatu beharra dago.

* Oinarrizko Proiektuan ageri diren obrak kutsatuta egon litekeen lursail batean egingo badira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzan Lurzoruaren Kalitate-adierazpena egiteko prozedurari ekiteko eskabidearen kopia aurkeztu beharra dago (Lurzoruaren kutsadura prebenitzeari eta zuzentzeari buruzko 1/2005 Legea).

Oinarrizko Proiektua aurkeztean, azken hori planeamenduarekin bat badator, eraikitze lizentzia emango da. Aipatu lizentzia SEI HILABETEn buruan iraungiko

da. Denbora-tarte horretan lizentzia horretarako aurkeztu diren agiriak osatu egingo dira **Obrei ekiteko baimena** lortzeko aurkeztu behar direnekin.

Hala ere, kutsaturik egon litezkeen lurzoruetan egin beharreko obrak direnean, iraungitze-epea beharrezko denboran luzatu ahal izango da –interesatuak horrela eskatuta-, Lurzoruaaren Kalitateari buruzko Aitorpena lortu bitartean.

Agiri horiek zuzenak badira eta eskabidea erregistroan sartu den egunetik zenbatzean hasita, Udalak **3 HILABETEKO** epean emango du eskatutako obra-lizentziaren gaineko ebazpena.

Agiriren bat falta bada, eskatzaileari 15 eguneko epea emango zaio akatsak zuzendu ditzan (indarrean dagoen Prozedurari buruzko Legearen 71. artikulua).

“L-8 OIN BERRIKO ERAIKUNTZEN OBRA

HASTEKO BAIMENA

Obrei ekiteko baimena eskatzeko, ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

* Ondokoak biltzen dituen exekuzio-proiektua:

- a) Memoria: Xedea/aurrekariak; hirigintza-justifikazioa; - Hartutako irtenbidearen azalpena.
- b) Eranskin teknikoak: EKT-aren justifikazioa; Irisgarritasuna (68/2000 D.); Egiturari buruzko fitxak; Obraren Kontrolari buruzko Plana.
- c) Baldintzen plegua.
- d) Xehatutako aurrekontua
- e) Etxebizitzaren erabilerari eta mantentze-lanei buruzko eskuliburua (etxebizitzetarako eraikinen kasuan).
- f) Planoak: Egoera; Kokalekua; Lursailaren egungo egoeraren planoak; doan lagatako erabilera eta jabego publikoko lursailaren planoak; Arkitektura planoak – (Solairuak, altxaerak, atalak) + Kotatutako planoak; Instalazioak; Ur-horniketa; Saneamendua; Elektrizitatea eta argiteria; Berogailua / Aireztapena; Suteak; Gasa; Egitura eta zimenduak; Akaberak; Zureria eta Errementaritza eta eraikuntza-apaingarriak.

Aipatu agiriak Oinarrizko Proiektuarekin batera entregatzen ez badira, ondoko agiriak sartu beharko dira Urbanizazio Osagarriak:

- a) Memoria: Hartutako irtenbidearen azalpena; Instalazioen kalkulua eta dimentsioak; eta Araudiaren egiaztagiria.
- b) Planoak: Dohain utzi zaion erabilera eta jabego publikoko lursailaren planoak; Instalazioak, sareak eta hartuneak; Ur horniketa; Saneamendua (Euri-ura eta ur zikinak); Elektrizitatea eta argiteria; Gasa; Hiriko altzarien planoak; Zoladuraren planoak.

* Segurtasun eta Osasun azterketa, eskumendun teknikariek eskudunak idatza, eta beraren Elkargo Profesionalak ikus onetsia, betiere, urriaren 24ko 1627/97 ED-aren 4 artikuluan ezarritako muga barruan (256 zenbakidun “BOE”)

* Obraren kalitate-kontrolako programa, eskumendun teknikariek idatzia eta beraren Elkargo Profesionalak ikus onetsia (betiere, Eusko Jaurlaritzaren Urriaren 22ko 238/1996 Dekretuan zehaztutako muga barruan).

* Eraikineko telekomunikazio zerbitzuetara sartzeko azpiegitura komunezko proiektua, dagokion espezialitateko telekomunikazio ingeniariak edo telekomunikazio ingeniari teknikoak idatzita eta beraren Elkargo Profesionalak ikus-onetsia , telekomunikazio-zerbitzuak eskura izateko eraikinetan egon behar diren azpiegitura komunezko buruzko otsailaren 27ko 1/98 L.D.E.ko xedapenetan zehaztu bezala.

* Zuzkidura publikoetarako (errepideak, espaloak, plazak edo lorategiak, eta abar) lursailak lagatzeari buruzko alde bietako idatziaren kopia baimendua edo/eta sestrapeko aprobetxamenduzko lursaila publikoki erabiltzeko zortasunaren agiria. Horrez gain, horien guztien planoak entregatu behar dira.

* Hirigintzako aprobetxamenduaren eskualdaketa formalizatzea proposatu bada, dagokion Banaketa Eremuaren barruko lursailaren edo lursailen lagapenei buruzko agiria aurkeztu beharra dago. Aipatu eremuaren hirigintza-aprobetxamendua eraikinetan

oinarri izango duen lursailari transferituko zaio (martxoaren 6ko 5/98 Legearen 2. Xed. Gehig.). Udala jabe duen lursail baten baimendutako eskualdaketa gauzatuz gero, dagokion balorazioa sartu beharko da Udal Kutxetan. Aipatu diru-sarrera Lurraren Udal Ondareztat joko da eta obren Zuinketa Akta jaso aurretik gauzatu beharra dago.

* Lursailaren gainazalari dagokion hirigintza-kuotaren ordainketa, zeinaren hirigintza-aprobetxamendua jarduketaren lursailari transferitu zaion. . Azken diru-sarrera hori obren Zuinketa Akta jaso aurretik gauzatu beharra dago.

* Oinarrizko Exekuzio-proiektuaren kontrata dela-eta, Exekuzio Aurrekontuaren laburpenaren Urbanizazio kapituluaren zehaztutako diru-kopuruaren % 20 ezarriko da abal moduan. Aipatu abala Kontrata-aurrekontuaren % 1 izango da gehienez ere. Bankuaren abala, ohiko urbanizazio obrak zuzen gauzatzeagatik berme gisa. Aipatu abala zehaztutako zenbatekoa izango da eta Obrei ekiteko baimenaren jakinarazpenean ezarritako denbora-tartearen barruan jarri beharko da, beti, obren Zuinketa Akta jaso aurretik.-

* Ekintza urbanistikoaren ondorioz sortutako gainbalioetan komunitateak parte hartzea. (HSL-aren 27 art.)

Indarrean dagoen legedian xedatutakoa beteko da, kasu honetan Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/06 Legeko 27. artikuluan xedatutakoa.

Aipatu diru-sarrera Lurraren Udal Ondareztat hartuko da, eta Obrei ekiteko baimenaren jakinarazpenean adierazitako epean gauzatu beharko da; beti, obren Zuinketa Akta jaso aurretik.-

* Hasteko baimena eskatutako obrak kutsatuta egon daitezkeen lursail batean egin behar badira, Lurzoruaren Kalitateari buruzko aitorpena aurkeztu beharko da. Aitorpen hori Eusko Jaurlaritzaren Ingurumeneko Sailburuordetzak emango du.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: BI HILABETE

AKATSAK ZUZENTZEKO EPEA: 15 egun

“L-9”

PLANTA BERRIKO ERAIKINAK

ESTREINAKOZ ERABILTZEKO LIZENTZIA

- * Eraikin Berriaren Deklarazioari eta eraikinaren Jabetza Horizontaleko Erregimenaren Eraketari dagokion idatziaren zirriborroa.
- * Bizitegi-multzoaren koloretako argazki-erreportajea. Aipatutako erreportajea, halaber, fatxada bakoitzaren argazki bat eta bizitegi-multzo osoaren beste argazki bat agertu beharko dira.
- * Obra Amaieraren agiri grafikoak, baita oinplanoen eta altxaeraren planoak ere. Azken horietan, halaber, bere garaian aurkeztutako Egikaritze Proiektuari egindako aldaketak jasoko dira, baita egindako urbanizazioaren oinplanoari dagokion plano ere. Azkenik, zehaztu behar dira gauzatutako hiri-zerbitzuen kokapena eta ezaugarriak (argiteria publikoa, ur-harguneak, gasa, elektrizitatea, telefonoa, estolderia, euri-uren ebakuazioa, eta abar).
- * Obraren azken likidazioa, egokiro ikus-onetsia.
- * Obrako Zuzendaritzaren Amaierako ziurtagiria, egokiro ikus-onetsia.
- * Telekomunikazioen Ikuskaritzako Probintziako Buruzagitzaren ziurtagiria, telekomunikazio-zerbitzuak eskura izateko eraikinetan egon behar duten azpiegitura komunei buruzko 1/98 LDE-an zehaztutako obligazioak bete direla erakusten duena.
- * Gauzatutako urbanizazioaren abala edo bermea kitatzeko eskaera.
- * Berinapeekin, garabiekin eta hesi babestaileekin okupatu izan den bide publikoari dagokion agiria. Okupatzeari buruzko epeak adierazi beharko dira, bai hegalkinaren okupazioarenak baita lurzoruen okupazioarenak ere.
- * Higiezinak sustatzeko jarduerari dagokion JEZ-aren 833 epigrafeari jarraiki transmititutako metro koadroen Aitorpenaren fotokopia. Aipatu agiria Basauriko Udaren Jarduera Bulegoan aurkeztu beharko da.
- * Kalitatearen kontrolari dagokion Ziurtagiria (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak urriaren 22an emandako 238/96 Dekretua, zeinaren bidez Eraikuntzako Kalitatearen Kontrola arautzen den – 1996/11/7ko 215 zenbakidun EHAA).

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

"L-10"

ERAIKINEN ERABILERA ALDATZEKO ETA ERAIKITZEKO LIZENTZIA BATERATUA.

* Aurrez Kontsultatu ez bada, eskatzaileak lokalaren egoera zehaztuko du. Aipatu lokala, halaber, Erabilera Aldatzeko baimena duten kaleetako batean egon beharko da, halaxe zehazten baitu Obrak eta erabilera aldatzeko Udal Ordenantzaren 1. Eranskinak.

* Kasu guztietan, Lokalaren titulartasuna egiaztatu beharko da. Horretarako, Erregistroaren eguneratutako nota sinplea besterik ez da behar.

* Exekuzio proiektua, teknikari eskudunak izenpetua eta beraren Elkargo Profesionalak ikus-onetsia. Proiektuak, gutxienez, ondoko agiriak izan behar ditu:

- Txosten deskriptiboa eta justifikatzailea.
- Eranskin teknikoak: EKT egiaztagiria, Irisgarritasuna, Obraren Kontrolari buruzko plana, eta abar.
- Baldintzen agiria.
- Aurrekontu banakatua
- Segurtasunari eta Osasunari buruzko oinarritzko azterketa edo Segurtasunari eta Osasunari buruzko txostena.
- Etxebizitza erabiltzeko eta mantentzeko eskuliburua
- Planoak: Kokalekua (lokalaren argazkiak), Arkitekturaren planoak (kotaturik), Instalazioak, Akaberak, Zureria, Errementaritza eta eraikuntza-apaingarriak.
- * Etxejabeen Elkarteko Akta Liburuaren fotokopia, eskatzaileak proposatutako erabilera-aldaketa onartu edo ezeztatzeko Hitzarmenarena, hain zuzen.
- * Elkargoaren enkarguari buruzko Jakinarazpen Orria edo/eta esku hartuko duten Teknikoen zerbitzu profesionalak alokatzeko kontratuak, bi aldeek sinatuak.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun. Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

BASAURIKO UDALEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA HIRIGINTZAKO LIZENTZIEN ESPEDIENTEAK
EBAZTEKO EPEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA."

"L-11"

FINKATUTAKO HIRI-LUR MODUAN

**SAILKATUTAKO LURSAILAK ETA FINKATUGABEKO HIRI-LURRA EDO
JUP DUTEN LUR URBANIZAGARRIAK URBANISTIKOKI PARTZELATZEKO
PARTZELAZIOLIZENTZIA.**

- * Jatorrizko lursailaren egoerari buruzko planoa. Gutxieneko eskala 1:1.000.
- * Jatorrizko lursailaren planoa. Gutxieneko eskala 1:500.
- * Jatorrizko lursailaren planoa, proposatutako ataletan banatua. Aurreko planoaren eskala berean.
- * Jatorrizko lursaila erosi zeneko eskrituraren fotokopia.
- * Lursailen bereizketari buruzko eskritura publikoaren proiektua, non proposatutako atalen partzelazioa jasoko den.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

BASAURIKO UDALEAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA HIRIGINTZAKO LIZENTZIEN ESPEDIENTEAK
EBAZTEKO EPEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA."

“L-12”

ERAISTEKO LIZENTZIA

* Egingo diren obren Proiektu Teknikoa, Teknikari eskumendunak idatzia eta beraren Elkargo Profesionalak ikus-onetsia. Aipatu proiektuak, urriaren 24ko 1627/97 Edan zehaztutako kasuen arabera, Segurtasunari edo Osasunari buruzko oinarritzko azterketa edo Segurtasun eta Osasun txostena jaso behar du.

* Elkargoaren enkarguari buruzko Jakinarazpen Orria edo/eta esku hartuko duten Teknikoen zerbitzu profesionalak alokatzeko kontratuak, bi aldeek sinatuak.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO GEHIENEZKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

“L-13”

EGUZKI-ENERGIA HARTZEKO

SISTEMAK INSTALATZEKO OBRA-LIZENTZIA

1.- Proiektua lantzea beharrezko duten instalazioak.

Eguzki-energia hartzeko instalazioaren proiektua entregatu beharra dago. Aipatu proiektua teknikari eskumendunak sinatua eta dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia behar du. Hori guztia, ondoko araudi sektorialari jarraiki:

- 70 KW edo gehiagoko potentzia izenduna duten instalazio termikoak (Ur beroa eta berogailua).

- 5KW-etik gorako potentzia duten instalazio fotovoltaikoak (Elektrizitatea ekoiztekoak)

Proiektuak, gutxienez, “Eraikinetan eguzki energia hartzeko eta aprobetxatzeko udal ordenantza Arautzailean” jasotako dokumentuak ekarri behar ditu.

Kasu horietan, ondoko agiriak entregatu behar dira:

- o Obrako Zuzendaritzaren nahiz obrako segurtasuna eta osasuna koordinatzearen arduradun diren teknikarien zerbitzu profesionalak alokatzeko kontratua.

- o Segurtasunari eta osasunari buruzko txostena edo oinarrizko txostena.

Obra amaitzean Obra Amaierako Ziurtagiria entregatu beharko da, teknikari eskumendunek sinatua eta dagozkion Elkargo Profesionalek ikus-onetsia. Aipatu ziurtagiriak erakutsi behar du instalazioa bat datorrela aurkeztutako proiektuarekin eta indarrean dauden arauak betetzen dituela. Horrez gain, egindako inbertsioa egiaztatzen duten fakturak aurkeztu behar dira, baita jarduketa eremu guztien argazki-erreportajea ere.

Sarera konektatutako instalazio fotovoltaikoen kasuan, instalazioa egin duen instalatzaile baimendunak igorritako txostena aurkeztu beharra dago. Aipatu txostenarekin batera, probak gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztuko da.

2.- Proiekturik behar ez duten instalazioak.

Proiektua egin behar ez den kasuetan, nahikoa izango da baimendutako instalatzaileak igorritako honako agiriak aurkeztearekin:

- o Instalazioari buruzko txostentxo deskriptiboa.

- o Instalatutako potentziaren kalkulua.

- o Instalazioen planoak edo eskemak.

- o Instalazioaren aurrekontua, atalka eta sailka banakatua.

- o Instalazio fotovoltaikoen kasuan (5 KW edo gutxiagokoak), instalazioari buruzko hari bakarreko eskema.

Obra amaitzean, halaber, baimendutako instalatzaileak igorritako txostena edo ziurtagiria atxiki beharko da. Aipatu agiriak erakutsi behar du instalazioa aurkeztutako agiriarekin eta indarrean dauden arauarekin bat datorrela. Horrez gain, gauzatutako inbertsioari dagozkion fakturak eta jarduketa eremu guztien argazki-erreportajea entregatu behar dira.

3. Instalazio guztietarako agiriak Instalazioek unean une indarrean dauden eta aplika daitezkeen arau sektorialak bete beharko dituzte, batez ere, Behe-tentsiorako Erregelamendu Elektroteknikoa eta eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua

(edo horien ordezeko izan daitezkeen legezeko xedapenak). Kasu bakoitzean dagokiona aplikatu beharko da.

Era berean, "Eraikinetan eguzki energia hartzeko eta aprobetxatzeko Udal ordenantza Arautzailean" datozen eta aplikatu daitezkeen baldintza guztiak bete beharko dira, bereziki, paisaia babesteari buruzkoak.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek, kasuan kasu gauzatuko diren lanen ezaugarriak kontuan hartuta, ondokoak eska ditzakete:

- Laneko Arriskuak Prebenitzeari buruzko legeak bete direla egiaztatzen duen ziurtagiria, baita segurtasunari eta osasunari buruzko txostena edo oinarritzko txostena ere.
- Plaken eta berorien euskarrien erresistentziari buruzko kalkulua, NB-E-AE-88 agirian ezarritakoarekin bat, elurraren eta haizearen gainzama kontuan hartuta.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: 3 HILABETE

AKATSAK ZUZENTZEKO EPEA: 15 egun

Akats horiek ez badira zuzentzen, beste izapiderik gabe artxibatuko da.

“L-14”

UDAL JABETZA PUBLIKOKO LURRAREN AZPIAN EGINGO DIREN OBRENTZAKO LIZENTZIA.

Obra gauzatzeko jabetza publikoko udal lurrian (kaleak, plazak, parkeak, lorategiak, eta abar) zangak eta hondaketak egin behar izateari egiten dio erreferentzia. Aipatu obrak zeinahi motako zerbitzu edo kanalizazio jartzeko, zaintzeko edo berritzeko egin behar izaten dira. Multzo honen barruan, halaber, jabetza publikoko udal lurrian azpiaren gain eragina duten obra guztiak sartzen dira.

Ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

* Egin beharreko obren proiektua, teknikari eskumendunak idatzia (Segurtasunari eta Osasunari buruzko Oinarritzko Txostena edo Segurtasunari eta Osasunari buruzko txostena), beraren Elkargo Profesionalak ikus-onetsia.

* Obrek bidean aurkituko dituzten kanalizazio eta zerbitzu guztien jabetza-agirien fotokopia. Horretarako, Iberdrola, Euskaltel, Gas Natural, Udaleko Zerbitzuak eta obrekin zerikusirik izan dezaketen bestelako zerbitzuekin harremanean jarri beharra dago. Horrela, eragile bakoitzari dagozkion arauak eta eskakizunak kontuan hartuko da eta erasandako instalazioak aurrez ezagutu eta kokatu ahal izango dira zehaztasun osoz.

- Arestian aipatutakoaren egiaztagiri moduan, kanalizazio sarean jabe den eragileak igorritako idatzia onartuko da. Aipatu idatziarekin batera, halaber, planoak edo ondoko web orrian eskuragarri dagoen kontratua bidali beharra dago: [INKOLANek](http://INKOLAN.com) kudeatutako www.inkolan.com.

* Elkargoaren aginduari buruzko Jakinarazpen Orria edo/eta esku hartuko duten Teknikarien zerbitzu profesionalak kontratatzeko agiriak, bi aldeek sinatuak.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

BASAURIKO UDALAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA HIRIGINTZAKO LIZENTZIEN ESPEDIENTEAK EBAZTEKO EPEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA."

“L-15”

EGITURAN BERMATUTAKO HESIAK, KARTELAK, IRAGARKI-DORREAK, ERROTULUAK eta abar JARTZEKO LIZENTZIA.

Azken lizentzia horretarako ondoko agiriak aurkeztu beharko dira:

* Aurrez egindako galdeketa, non kokalekua eta ezaugarriak adierazten diren.

Galdeketa egin eta baiezkoa jaso bada, ondoko agiriak aurkeztu beharko dira lizentzia eskatzeko:

* Euskarri-egitura instalatzeko Proiektu Teknikoa, teknikari eskumendunak izenpetua eta Elkargo Ofizialak ikus-onetsia.

* Erantzukizun Zibileko Aseguruaren polizaren kopia, eguneratua eta eskatzaileak izenpetua.

* Elkargoaren aginduari buruzko Jakinarazpen Orria edo/eta esku hartuko duten Teknikarien zerbitzu profesionalak kontratatzeako agiriak, bi aldeek sinatuak.

EBAZPENA EMATEKO EPEA: HILABETE 1.

AKATSAK ZUZENTZEKO EPEA: 15 egun.

Akats horiek ez badira zuzentzen, eskaria beste izapiderik gabe artxibatuko da.

BASAURIKO UDALAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA HIRIGINTZAKO LIZENTZIEN ESPEDIENTEAK
EBAZTEKO EPEA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.”